

«Tolosar bezala,
ohorea da
Ekinbide Etxeko
lehendakaria izatea»

AITOR IMAZ

TOLOSAKO EKINBIDE ETXEKO LEHENDAKARIA

Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari izendatu berri dute tolosarra; Leidor, Hodeiertz eta Kup abesbatzetan aritu da, besteak beste //

Ibarra eta piperraren arteko harremana biltzen duen liburua

Josu Ozaita antropologo ibartarrak 'Piperra' liburua aurkeztu du; herriko ekoizle, herritar edota biltzaileen istorioak jaso ditu //

Botikina eskatuko dute larunbatean Amaroizko auzotarrek

'Berandu baino lehen botikina Amaroitzen' lelopean kotxe martxa egingo dute auzotik abiatuta, eta elkarretaratzea udaletxe aurrean //



Herritar ugari elkartu zen atzo Tolosako Zerkausian, larunbaterako deitutako manifestazioarekin bat eginez. JOSU ARTUTXA

Larunbaterako mobilizazioak babes zabala jaso du

Larunbateko manifestazioaren deitzaileek «aski da» esateko garaia iritsi dela uste dute; Asuncion klinikak jakinarazi du, langileen artean positibo berri bat atzeman ostean, astelehenean ekingo diola eta ez gaur, ohiko jardunari «era mailakatuagoan» //



Martin Ugalde, Kultur Parkea - 20140 Andoain
943 304 315 -
info@izt.eus
www.izt.eus

ERALDAKETA DIGITALEAN, BEHAR DUZUN BIDELAGUNA



Asuncion ohiko jardunera itzultzea zalantzan jarri dute

TOPAk bat egin du larunbateko manifestazioarekin eta hainbat galdera plazaratu: «Hemengo arazoa konpontzen da asteburu batean jarduna murriztuta?»

Rebeka Calvo Gonzalez Tolosa

Tolosalde Osasun Publikoaren Alde plataforma «oso kezkatuta» dago Asuncion klinikan eman den agerraldiarekin. Esan du ospitaleko langileek aurretik ere nahikoa lan dutela behar den zerbitzua emateko, eta «horieta-ko 37 positibo direnez», momentu honetan nola ari diren jakin nahi du. «Klinika horretara arrisku taldekoak izaten diren pazienteak joaten dira, hainbat patologia dituztenak, eta oraingoz horietako 6 koronabirusak kutsatuta daude», ohartarazi du.

Gertaera horien aurrean zalantza eta galdera asko dituela esan du. Madrilen 100.000 laguneko 500eko indizearekin, alarma egoeran daudela eta horrek krisi politikoa eragin duela gogoratu du; «hemen berriz, langile-

en %10etik gora dago kutsatuta, eta asteburuan jardunaren zati bat gelditu eta ostegunean ohiko jardunera itzultzeko asmoa dute». Adinekoen zentroetan edo eskoletan positiboak egon direnean, zentroak itxi eta pertsona horiek berrogeialdia egitera bidali dituztela gogoratu dute, «eta hemen arazoa konpontzen da asteburu batean jarduna murriztuta?».

<<NOLA ARRAIO EGIN BEHAR DIO OHIKO JARDUNARI?>>

Ospitalerako ohiko jardunerako itzulera nola egingo duen ere jakin nahi du Topak: «Oso ezaguna da klinika honek zer arazo duen osasun langileak aurkitzeko, nola arraio ekin behar dio ohiko jardunari? Betikoa egin da? Txandak bikoiztuz osasuntzu dauden langile bakar horiei,

alegia?». «Galdera da ea hori horrela egiteko osasunari lotutako arrazoiak ari diren kontuan hartzen: Tolosaldeko herritarren osasuna babesteko edo, beste behin ere, azken 28 urteetan bezala, arrazoi erabat politikoak eta ekonomikoak jarri diren Tolosaldeko herritarren osasunaren gainetik».

Tolosako alkateak transmisio komunitariorik ez dagoela esan izana ere salatu du eta azalpen gehiago eskatu dizkio: «Ezin digu esan ez nola hasi den, ez zergatik, ez nola zabaldu den hainbeste eta hain azkar. Gainera programatutako ebakuntzen kasuan edo ospitaleratu behar izanez gero, Bidasoa ospitalera bidali nahi gaituzte, argudiatuz lehenik ere joaten garela Donostiako larrialdietara. Orduan zergatik ez joan Donostia ospitale-



Agerraldia egin zuen atzo, TOPA plataformak. J.A.D.

ra?». Era berean, osasun sailak orain arte azalpenik eman ez izana salatu du.

Arrazoi horiek direla eta, larunbateko manifestazioa babestu du TOPAk eta bertan kudeaketa publikoa duen eskualdeko ospitalea eta erabat hornitutako espezialitateen an-

bulatorioa eskatuko dituela esan du.

«Auzi hau, norberak izan ditzakeen lehentasun eta iritzietatik harago, bidezko aldarrikapen bihurtu da gaur egun, baldin eta EAEko gainerako eskualdeek duten osasun arreta nahi badugu», esan dute.

Babes zabala jaso du larunbateko deialdiak

Herritar askok babestu dute Asuncioneko hainbat langile zein herritarrek larunbaterako deitutako manifestazioa

R.C.G. Tolosa

Larunbatean manifestazioa egingo da Tolosan, Asuncion klinikan egondako agerraldiari lotuta. Ospitaleko hainbat langile eta herritarrek deitu dute eta hori babestuz argazki jendetsua atera dute. Tolosaldeko ospitalean izandako agerraldiarekin «nazkatuta» daudela esan dute; «urteak dira eskualde honetako osasun arretaren gabeziak salatzen ari garela».

Eskualdean «bigarren mailako» arreta jasotzen dela salatu



Argazki jendetsua atera zuten, larunbateko manifestazioarekin bat eginaz. J.A.D.

dute; «askotan esan dugu, beste eskualdeetako osasun arreta berdina nahi dugu, kalitatezkoa eta publikoa». Hori dela eta, eta azken berriak ikusita, «aski da» esateko garaia dela uste dute.

«Ez gaude egoera hau onartzeko prest eta argi dugu, hau ez dela kasualitatea. Interes ekonomikoak, osasun arretaren gaitetik jartzearen ondorio da», gaineratu dute.

ZURIA DEN ZERBAIT

Herritar guztiei larunbateko manifestazioan parte hartzeko deia luzatu diete eta eskatu dute manifestaziora kamiseta, beroki, aterki, bufanda edota beste elementu zuriren bat eramateko. Era berean, gaur 18:00etan Zerkaussian kartelak jartzeko bildu-

ko direla esan dute, eta bertartzeko deia egin.

EH BILDUREN BABESA

Tolosaldeko EH Bilduk larunbateko manifestazioa babestu du. «Egoera honek garbi azaleratzen du Tolosaldean aspalditik aldarrikatzen dugun osasun arreta publiko integral baten beharra. Garbi daukagu gertatutakoa ez dela kasualitatea izan, urte askotako kudeaketa pribatuak eragindako emaitza zuzena baizik. Tolosaldeko herritarrak eta Asuncion klinikako langileak interes ekonomikoa lehen planoan jartzen duen osasungintza eredu baten menpe egoten jarraitzen dugu». Kalitatezko osasungintza publiko eta euskalduna aldarrikatuko dutela esan dute.

Asuncion klinikan astelehenean ekingo diote ohiko jardunari

Zentroko langileen artean atzo positibo berri bat atzeman ostean, zuzendaritzak eta Osakidetza ohiko jardunera itzultzea atzeratzea erabaki dute; Osakidetza protokoloak jarraitzen dituztela dio zentroak

R.C.G. Tolosa

Asuncion klinikako arduradunek atzo arratsaldean baieztatu zuten bertako langile batek positibo eman duela azken egunean. Ondorioz, zentroko zuzendaritzak Osasun sailarekin batera, adostu du ohiko jardunaren itzulera mailakatu izatea, eta astelehenera atzeratzea. Beraz, kirurgiak astelehenean berraktibatuko dituzte, eta larrialdietara bertaraten direnak ere ordutik aurrera izango direla artatuak esan dute. Bisitei dagokienez, murriztuta jarraituko dute.

Izan ere, Osakidetza ezartzen duen protokoloa jarraitzen dutela esan dute. «Klinikako langile guztiek funtzio eta lanpostu bakoitzaren arabera babeserako materiala dute eskura». Material horren erabilera eta eraberritzerako protokoloak daude ere, «eta horiek zorrotz jarraitzen dira».

OSAKIDETZAKO NEURRIAK

Sindikatu eta langileen kexen inguruan galdetuta esan dute «Euskadiko gainontzeko ospitaleetan bezala langileei ez dizkietela PCR probak maiztasun jakin batekin egiten. Pandemiaren lehen olatua bukatzean azterketa serologiko bat egin zen langileen artean egoeraren berri izateko. Hortik aurrera, susmo txikienarekin, langile guztiek egin dezakegu PCR proba azkar eta ohiko bat, kasuaren arabera. Oraingo egoera



Asuncion klinikako larrialdietarako sargunea. R.C.G.

ikusita, PCR probak egin dizkiogu pertsonal guztiari eta 7 eguez behin errepikatuko ditugu datozen lau asteetan». ELA eta LAB sindikatuek salatu dute langileen artean positiboak eman badira ere, horiek lanean jarraitu dutela, baina Asuncionez dio hori ez dela egia: «Langileen artean positiboak atzeman bezain pronto, pertsona hori bakartu da, gainontzeko biztanleriarekin jarraitzen den protokolo bera jarraituz. Eta noski arakatzeko lana egin da, pertsona horren kontaktuak bakartzeko».

Gaineratu du egia dela positibo direnak eta ez direnak solairu berean daudela, baina «behar bezala bakartuta eta bananduta» daudela, «beharrezkoak diren baliabide fisikoak ezarrita eta erabat independentea den zirkuituan». «COVID gunean dauden langileak bertatik ateratzen direnean zirkuitu itxi bat dute behar bezala dutxatu eta aldatu ahal izateko, gainontzeko langileekin nahastu gabe».

Klinikako arduradunek diote pazienteen inguruan ospitaleratu baino 48 ordu lehenago PCR proba egiten zaiela, ospitalean egon eta bosgarren egunean errepikatzen zaiela, eta egonaldia luzatuz gero astero egiten dietela. Larrialdietara joaten direnei PCR proba azkarra egiten diete, eta emaitza ordubetera izaten dute. «Emaitzaren zain dauden bitartean zona misto batean daude, COVID zonaldeetik eta COVIDa ez duten pazienteen zonaldeetik kanpo».

GARBIKETA

Garbiketa zerbitzuari buruz galdetuta, erantzun dute agerraldia- ren ondorioz jarduna murriztu behar izatean, garbiketa beharrak ere murriztu direla, «dena den, ohiko jarduerara bueltatu bezain pronto beharrezkoak diren baliabideak indartuko dira».

Neurriak hartu badira ere agerraldia zergatik eman ote den galdetuta, esan dute «azterketa sakona» egiten ari direla.

Botikina eskatzeko mobilizatuko dira

Amarotzen farmazia kendu zuten eta botikin baten beharra aldarrikatu dute auzotarrek; larunbatean aterako dira kalera

Erredakzioa Tolosa

2019ko uda hasieran, Amarotz auzoan zegoen Azpiroz farmazia Larramendi auzora lekualdatuko zela jakin zuten bizilagunek. Haren orde, baina, Eusko Jaurlaritzari botikin bat jartzea eskatu zioten, baina ezezko erantzuna jaso dute eta hori dela eta *Be-randu baino lehen botikina* *Amarotzen* leloarekin kotxe-martxa eta elkarretaratzea egingo dute larunbat honetan. 10:30ean aterako dira Amaro- zko frontoitik eta 12:00etan Tolosa- ko udaletxe aurrean egingo dute protesta.

Botikinaren beharra aldarri-

katzen dute auzotarrek eta gaia lantzeko hirurogei bat auzotarrek batzordea sortu dute. Estrategia ezberdinak garatzea da helburua, eta baita mobilizaioak deitza ere, larunbat honetako izango delarik lehena.

Egoera «tamalgarria» dela dio- te, auzotarrak Berazubi auzora joan behar direlako farmaziara joan behar diren guztietan. «Jaurlaritzak emandako ezezko distantzia soilik oinarritzen da, eta gure ustez hori ez da balizko argudioa. Dekretu baten arabera, distantzia neurriak bete ez arren, auzoan baldintza bereziak badira, posible da botikin bat zabaltzea», diote.

14

AZKEN POSITIBOAK

Osasun sailak emandako datuen arabera, 7.466 PCR proba egin ziren herenegun, eta, horietatik, 410 positiboak izan ziren. Horietatik, 186 Gipuzkoan, eta 14 Tolosaldean; Tolosan 6, Anoetan 3 eta Abaltzisketan, Alegian, Amezketan, Ibarran eta Amasa-Villabonan bana atzeman dituzte. COVID-19aren ondorioz 33 pertsona ospitaleratu ziren herenegun, 263 daude orotara, eta 50 pertsona daude ZIUUn. Bestalde, urriaren 5etik 11ra bitartean COVID-19aren eraginez 34 hildako egon direla adierazi dute.

Sindikatuak greba deitu dute Osakidetza

TOSALDEA // ELA, LAB, SATSE, SME, CCOO, UGT, ESK, SAE eta UTESE sindikatuek hiru greba egun deitu dituzte Osakidetza osasun publikoak pairatzen dituen gabeziak salatzeke. Gipuzkoan azaroaren 5erako deitu dute greba, urriaren 29rako Araban eta azaroaren 12rako Bizkaian. «Eusko Jaurlaritzaren propaganda-diskurtsoetaz harago, Osasun Sailak eta Osakidetza ez dute mahai gainean jarri gure osasun publikoak pairatzen dituen gabezi larriak arintzeko neurririk», esan dute.



zozketak

Atarikideentzat Saski bat daukagu



Mahalako produktuez
osaturiko saski bat.

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

‘Gorria’ dantza
ikuskizunerako
bi sarrera.

Igandea, urriak 18, 19:30.
Gurea Antzokian
(Amasa-Villabona)



Atarikideentzat bi sarrera ditugu

‘Viaje al final de
la noche’
ikuskizunerako
bi sarrera.

Ostirala, urriak 16,
20:30. Leidor
Antzokian (Tolosa)



Atarikideentzat bi sarrera ditugu

‘Rigoletto Opera Pantailan’
ikuskizunerako bi sarrera.



Asteartea, urriak 20, 20:00.
Gurea Antzokian (Amasa-Villabona)

«Abanikoa gehiago zabaldu eta etxea guztiz zaintzea egokituko zait»

AITOR IMAZ LARRETA

TOLOSAKO EKINBIDE ETXEKO LEHENDAKARIA

Herrian kultura sustatzeko sortu zen TEE, eta bertan, lau urteko agintaldiari ekin berri dio Aitor Imaz tolosarrak; erakundeaz, bere egitekoaz edota Abesbatza Jaialdiaz aritu da



JOSU ARTUTXA DORRONSORO

Josu Artutxa Dorronsoro

Leidor, Hodeiertz eta KUP Taldea abesbatzetan aritutakoa, Tolosan ez dago bertako nazioarteko abesbatza lehiaketa hobeto ezagutzen duenik. Aurrerantzean, baina, beste ikuspegi batetik biziko du Aitor Imazek (1975, Tolosa), Tolosaren eta kulturaren arteko lotura, duela gutxi izendatu baitute Tolosako Ekinbide Etxeko (TEE) lehendakari.

Ezagutzen ez dutenentzat, zer da Tolosako Ekinbide Etxea?

Izenak berak dioen bezala, etxe bat da, alor ugari biltzen dituen etxe handi bat. Abesbatza Lehiaketa antolatzeaz gain, bestelako kultur ekitaldiez ere arduratzen gara, besteak beste, Titirijai Txo-txongilo Jaialdia edota Amalur jardunaldiak. Horri, Topic zentroak urte guztian zehar izaten duen mugimendua gehitu behar zaio, ikastetxeen eta herriarren bisitetatik hasi, eta antzerki saio edo musika kontzertuetaraino, emanaldi horien entseguak ere kontuan izanik. Azken finean, urtean zehar, herriarrek uste dutena baino martxa handiagoa

dago etxe barruan, eta guzti hori, bertako langile bikainei esker.

Noiztik zara bertako kide?

Urte asko egin behar dira atzera. Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan kolaboratzaile modura lanean hastearekin batera sartu nintzen lan-taldean; 15-16 urte edo izango dira. Orain arteko urte hauetan, batez ere, udazkena heltzean aritzen nintzen buru-belarri lanean, lehiaketa prestatzen.

Orain, lehendakari izateko hautatu zaituzte. Zer sentitzen duzu?

Proposamena jaso, eta nire buari galdera ugari egin nizekion. Pentsamendu ugari izan ditut, urduritasuna eta presioa ere sentitu dut azken asteetan, ardura handia delako. Hala ere, tolosar bezala Ekinbide Etxeko lehendakari izateko aukera izatea ohore bat da, eta gainera, pozgarria da etxeko zenbait kidek zugar pentsatu dutela jakitea ere. Ondo ezagutzen dut etxea, beraz, «zergatik ez?», pentsatu nuen nire baitan. Erronka berri bat iruditu zitzaidan, eta baiezkota eman nuen.

Zein izango da zure egitekoa lehendakari bezala?

Lehen, abesbatzen kontuarekin soilik aritzen nintzen lanean. Orain, ordea, abanikoa gehiago zabaldu eta etxea guztiz ondo zaintzea egokituko zait. Beste alorak hobeto ezagutzeko aukera izango dut aurrerantzean, baita egunerokotasunean gehiago jarraitzekoa ere.

Julian Lakunzaren lekukoa hartuko duzu. Zein balorazio egiten duzu bere agintaldiaz?

Etxeak etenik gabeko martxa du, puntualki, hau da, lau urtez behin, batzorde berri bat izaten duena. Nire kasuan bezala, duela lau urte, Julian beste lan-talde batekin sartu zen. Alor edo bloke bakoitzaren atzean, langile profesionalak daude, eta urtero antolatzen diren jaialdiak eta egiten diren saioak kalitate handikoak izaten dira. Hortaz, azken urteetan ere bikain funtzionatu du; tartean, abesbatza lehiaketaren 50. urteurrena ospatu da. Etxe honetako funtzionamenduak edo lan egiteko sistemak erakusten duena da, pertsona bat edo beste lehendakari modu-

ra egonda ere, martxa horri jarraipena ematen zaiola.

Nortzuk osatuko duzue aurrerantzean batzordea?

Kepa Goikoetxea izango da lehendakari ordea, Ane Garate, berri, idazkaria, eta Xarles Iturbe, diruzaina. Garrantzitsua izango da lauron artean talde-kohesioa lortu eta beste langile guztiekin batera etxearen funtzionamendu egokia aurrera eramatea.

Aurten, ezingo duzue Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa ohiko moduan antolatu. Sartu orduko, lehen oztopo txikia.

Urtea doan bezala doa, eta iaz, oraindik ere lehiaketako kolaboratzaile nintzela, ikusi genuen aurtengo edizioa ohiko moduan antolatzea ezinezkoa zela. Mugak itxi zituzten, eta noski, garaiz lan egitea eskatzen duen ekimena da. Ezinezkoa zen beste herrialdeetako taldeak ekartzea, azpi-egitura aldetik ere inbertsio ekonomiko erraldoia. Azkenik, duela hilabete batzuk ezinezkoa zen orain nola egongo ginen jakitea, ezta segurtasun eta osasun neurri guztiak bermatuko zirela baieztatzea. Ondorioz, lehiaketa

ez egitea erabaki zen, baina mahai gainean zenbait alternatiba jarri ondoren, bertako taldeekin osatutako jaialdi bat egitea erabaki da. Eta hor bada bitxikeria polit bat. Duela 50 urte inguru, lehiaketa antolatzen hasi zirenean, bertako abesbatza eta ahots taldeekin osatu zuten egitaraua, eta aurten ere, horrela egingo da.

Eta nolako maila izango da?

Argi eta garbi utzi behar da, urtero ikusten eta entzuten ditugun talde horien maila lortu duela Tolosak, eta aurten izango ditugun ere maila hori mantenduko dutela. Azkenik, kultura seguru dela erakutsi nahi dugu. Orain arte Euskal Herrian nahiz nazioartean ospatu diren jaialdi eta sariketetan ez da inolako arazorik sortu, eta guztia martxa onean joan da. Gure kasuan, eskatzen zaizkigun neurri guztiak beteko ditugu, eta maila handiko jaialdi bat eskaintzen ahaleginduko gara. Kulturari bizi dugun egoera bultzatu eta ekarpen txiki bat egitea eskatzen diet Tolosako nahiz eskualdeko herriarrei. Behintzat, bakarrera bada ere, joan daitezela kontzertuetara.

Talentua eta pertsonen kudeaketaren gaur egungo egoera eta etorkizuneko erronkak

Covid-19 garaian talentuaren kudeaketaz hausnartzeko eta Tolosaldean abiatutako proiektuak aurkezteko saioa

URRIAK 22
10:00 - LEHIBERRI ZENTROA
Izen-ematea :
lehiberri@tolosaldea.eus
☎ 943 654 501



lehiberri





Larraitzen, bertako ermitan, 50 bertsozale inguru bildu ziren igandean. ATARIA

Jon Martinek irabazi du Abaltzisketako lehen kanporaketa

II. Pello Errota sariketako lehen bi finalistak erabakita daude Abaltzisketako kanporaketaren ondoren: Jon Martinek eta Izarne Zelaia eskuratu dituzte finalerako lehen bi txartelak

Harituz bertsozale elkartearen Abaltzisketa

Jon Martin oiartzuarrak 276,5 puntu eta Izarne Zelaia 266 puntu eskuratu zituzten, hurrenez hurren. Hirugarren Erika Lagoma sailkatu zen 261 punturakin, laugarren Iñaki Viñaspre 255ekin, bosgarren Iñigo Gorostartzu *Etxorde* 253ekin eta seigarren, Ander Elortegi 248,5 puntu bilduta. Berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren igandean Larraizko ermitan eta giro beroa sortu zen lehen bertsoalditik.

Hasierako agurretatik eman zuen zeresana Larraizko areto bereziak, izatez ermita bat baita. Bertsolari askok norbere buruarekiko fedea aipatuz hasi zuen saioa eta behin agurrak abestu ostean, zortziko handiko ofizioekin hasi zuten sei bertsolarien puntuagaria. Zortziko handian zein txikian, bertsoaldi txukunak egin arren, hamarrekotxikiko ariketan entzun ziren bertsoaldirik onenak, Izarne Zelaia eta Ander Elortegik osatu zutena denen buru: Errealeko futbolarien paperetik aritu behar izan zuten, euskara hutsez emango dituzten prentsurrekoen harira.

Kartzelako ariketan, berriz, hi-

runa puntu erantzun eta gai bati bina bertso kantatu behar izan zizkieten bertsolariak. Ariketa horietan azpimarratzekoak izan ziren bertsoaldiak Jon Martin, Izarne Zelaia eta Iñigo Gorostartzurenak izan ziren.

Berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren Larraizko ermitan eta giro beroa sortu zen, saioa lehertu ez bazen ere. Bertsolari batak saioaren amaieran azaldu zuenez, «jendeak oso harrera beroa egin digu eta eroso aritu gara bertsoan. Gaiek ere lagundu dute horretan eta saioaren balorazioa oso positiboa da».

BIGARREN KANPORAKETA

Hurrengo kanporaketa igandean izango da Irurako kulturgunean eta bertan osatuko da azaroaren lehen Asteasuko finalean kantatuko duten sei bertsolarien zerrenda. Honako bertsolari hauek izango dira bigarren kanporaketan parte hartuko dutenak: Amaia Iturriotz, Iñigo Izaguirre, Odei Barroso, Saioa Alkaiza, Unai Mendizabal eta Xabat Gallatebeitia. Saioa 17:30ean hasiko da eta antolatzaileek bertara joateko gonbidapena luzatu nahi diete eskualdeko bertsozaleei. Sarrerak saioa hasi baino ordu bete lehenago eskuratu ahal izango dira, aretoan bertan.

GUTUNA

Udal gobernaren malgutasun eza

EAJko udal taldeak, Larrea haur parkea estaltzeko proiektuarekin, malgutasun handiagoz eta autoritarismo gutxiagorekin jokatzeko eskatu dio EH Bilduri. Aldi berean, gai honi buruz alderdi guztien artean azterketa serio eta sakon bat egitea ere eskatzen dio.

Duela egun batzuk, Hirigintza batzordean parke hori estaltzeko oinarriko proiektuaren berri eman zen; proiektu partziala, urbanizazio atalik gabekoa eta oso garestia (175.000 euro). Lehenengo aldia izan zen proiektu horri EH Bilduk aurrekontu zehatz bat ematen ziola. Aurkeztutako diru kopuruak, gorpuztu egiten du urtetan EAJk proiektu honekiko izan duen zalantza. Garbi dago, *Rayuela* izeneko hasierako proiektu osoa garatu izan balitz, 300.000 eurotik gorako aurrekontua edukiko zuela (eta hori gehiegikeria bat da, estrategikoa ez den proiektu batentzat).

Hirigintza batzordean, Larrea parkea estaltzearen zilegitasuna ukatu gabe, Bilduri eskaera zuzen bat egin zitzaion: hilabete batean,

alderdi guztien artean eztabaida-gune bat irekitzea behin betiko erabakia hartu aurretik. Erabakia zertxobait atzeratzeko proposamenak argudio zuzen hauek zuten: Bizi dugun krisi ekonomiko larriaren aurrean, elkarrekin jarduteko beharra, lehentasunak ondo birpentsatuz; Gastuekin zuhur jokatu beharra, «gerrako» aurrekontuak izango ditugulako; Proiektuak zalantza asko sortzen dituelako; Gaur egun, udalak onartutako beste barruti estaliko proiektu modernoago eta merkeago bat esku artean dugulako (80.000 eurokoa) arazo teknikorik gabe, Larrea parkerako egokitu eta txertatu dezakeguna.

Gainera, jakinarazi zitzaion, 175.000 euroko proiektu partzial hori ez dela auzokoekin kontsultatua izan, ondoko eraikinaren garajeak kaltetuak suertatuko zirela, proiektua egungo paisaia-irizpideen aurka zihoala, eta hormigoizko eta metalezko esparrua zela, hiru aldeetatik itxia zegoena, honek argiztapen arazoak sortuz, eta ondorioz, herritarren segurtasunari dagokionez, «puntu beltz» arriskutsuak areagotuz.

Halaber, adierazi zitzaion hasiera batean kiroldegia atzeal-

derako aurreikusitako 80.000 euroko proiektua askoz modernoagoa zela estetikoki, material ari-nagoekin egina, mantentze gastu gutxiago izango zirela, eta gainera, argiztapen hobeagoarekin. Inpaktu bisual txikiagoa duen proiektua, espazio irekiak sortzeko egungo joerekin bat datorrena. Laburtuz, askoz ere jasangarriagoa. Tolosan, Beasainen edo Donostian dauden beste estalki batzuen oso antzekoa.

Hori gutxi balitz, parkea estaltzearen premia ez zela hainbestearinokoa esan zitzaion; izan ere, aurreko legealdian tokiko ikastetxeekin hartutako konpromisoei esker, aste gutxiren barruan Arroako Fleming Ikastetxearen eraikina (udal jabetzakoa) estalitako eremu bat izango du, eta ezin hobeto, eskolaz kanpoko ordutegian libreki erabili ahal izango da.

EAJk Bilduri bere itxitasuna eta malgutasun eza berriz aztertzeko eskatzen dio: Zergatik, pandemiaren testuinguru honetan, 175.000 euro gastatu behar ditugu modu alai batean, beste proiektu jasangarriagoa eta merkeagoa esku artean edukirik? Non dago arrazionaltasuna?

Amasa-Villabonako EAJ udal taldea

Teodoro Hernandorena XIX. Ipuin lehiaketa martxan da

Erredakzioa Zizurkil

Lan bakoitzaren bi kopia entregatu beharko dira azaroaren 20ra bitartean Zizurkilgo udaltxean edota udal bulegoetan.

Zizurkilgo Udaleko Euskara sailak, Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo jendearen artean idazteko zaleatasuna sustatu nahian antolatu du aurtengoan ere sariketa.

Aurkeztzen diren lanek egile bakarra izan behar dute eta par-

taide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake. Gaia librea da, eta noski, erabili beharreko hizkuntza euskara. Bost mailetan banatu dute lehiaketa.

Epaimahai aditu batek erabakiko du lan sarituak zein diren. Zizurkilgo Udalak bere ordezkaria izango du epaimahaiaren eta idazkari bat ere izendatuko du. Lan sarituak udalaren esku geratuko dira, eta egoki iritziz gero argitaratu egingo ditu.

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 18an egingo dute.

Urtaroak ardatz hartuta egingo dute argazki lehiaketa

ANOETA // Argazkiak urriaren 29ra arte aurkeztu ahal dira eta Anoetan errolatuta daudenek eta Anoetako ikastolako ikasleek parte hartu ahal izango dute, bakarka. CDan, USBan edota *euskara@anoeta.eus* helbidera bidalita aurkeztu daitezke argazkiak, gehienez hiru. Epaimahaiak aurretiko aukeraketa egingo du, eta, ondoren, herritarrek izango dute horien artean gustukoenak hautatzeko aukera. 50na euroko saria izango dute zortzi argazki onenek.

Irakurle taldea jarri nahi dute martxan, ikuspegi feministatik

ANOETA // Anoetako Udalak jarri du ekimena abian. Izen emateak, urriaren 16ra arte egin daitezke. Azaroan hasita, hilean behin bi orduz egingo dituzte hitzorduek eta Kattalin Minerrek dinamizatuko ditu saioak. Izena eman daiteke liburutegian, edo bestela, *kultura@anoeta.eus* helbidera mezu bat bidalita. Prezioa bost eurokoa da.

BIDANIA - GOIATZ
672 798 852
mikellasaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

Gasa

Berokuntza

Energia
Berriztagarriak



Ibarrako udaletxeko areto nagusian aurkeztu zuten liburua, atzo, Josu Ozaitak eta Igor Zapirainek. I.S.A.

Piperra, herri baten «altxorra»

Josu Ozaita antropologo ibartarrak 'Piparra' liburua aurkeztu du; herriko ekoizle, herritar, biltzaile eta gehiagoren istorioak jaso ditu, besteak beste

Irati Saizar Artola Ibarra

Ibarra eta piperraren arteko harremana liburu batean bildu du Josu Ozaita antropologo ibartarrak. *Piparra* du izenburua eta urriaren 19tik aurrera salgai jarriko dute zortzi euroren truke Barriola harategian, Bitxori fruta dendan, eta Txumitxa eta Zubiaurre tabernetan.

Atzo eguerdian aurkeztu zuten liburua Josu Ozaita liburua-

ren egileak eta Igor Zapirain Ibarrrako alkateak, Ibarrrako udal-txean. Piperra altxortzat dute herrian, alkatearen arabera: «Gure kultura eta izatearen parte da, eta piperraren ezagutza, transmisio eta zabalpenean liburu hau ekarpen nabaria izango delakoan gaude».

Ekoizle, sustatzaile eta sortzaile asko ditu Ibarrrako piperrak bere bueltan, eta horiei balore eta indarra ematea du helburu

udalak: «Ibarrrako piperrak bere bueltan eta historian zehar batu duen guztia balioan jarri eta zabaltea da asmoa».

Liburuan piperraren ekoizle- en istorioak bildu dira, zehazki, Txumitxa, Ibar lur kooperatiba, Zubelzu eta Aranekoak. Piper biletaz ere aritu da liburuan, eta era berean, biltzaileez. «Lehen, herriko gazteak aritzen ziren eta gaur egun munduko hainbat txokotako langileak aritzen dira

bilketa lanetan» aipatu zuen Ozaitak. Baratzetan ikusten diren «itzalak» humanizatu eta gerturatu egin nahi izan ditu *Ikusezinak* izena eman dion atalean.

Ildo horretatik jarraituz, piperra «sinbolo kondentsatua» dela esan zuen egileak, ez baitu ulertzen fruitu soil bezala, baizik eta «bere baitan historia, emozio, identitate eta istorio asko barne-biltzen dituen». Esperientzia eta emozio horiek ere bildu nahi izan ditu Ozaitak liburuan, *Festa, Ibartar erruleta* eta beste hainbat atalen bidez. Herrian piperraren bueltan antolatzen diren landaketa, azoka edota lehia-

Astelehenetik aurrera eskuragarri egongo da liburua herriko lau komertziotan, zortzi euroren truke

ketak ere jaso ditu liburuan. Amaieran, 32 errezeta ere agertzen dira, Xepla elkarteak antolatzen duen azokan egiten den pintxo lehiaketako irabazleenak, zehazki.

PIPERRA BEZALA, FRESKOA

Liburua osatzeko ideia urteak atzera eginda sortu zen. 789 elkarteak piperraren oinarri teorikoak, historia biltzeko beharra azpimarratu zuen, eta garai horretan, Ozaita antropologiako ikasketak amaitzen ari zen. Bere gradu amaierako lana *Ibarrrako piparra antropologia ikuspegitik* izan zen. 2016an, orduan alkate zegoen Mikel Agirrezabalak liburu bat osatzeko hitzarmena proposatu zion eta hortik etorri da dagoeneko eskuartearen dute liburu: «Piperra bera bezala, informala, freskoa eta gozatze-koa».

Ozaitak eskerrak eman dizkie liburuko protagonistei, eta baita Jexux Peñagarikano herritarrari ere, testuak txukuntzen eginda-ko lanarengatik.



«Piperra da Ibarra mapan kokatu duena; ezaguna bada, piperragatik izan da»

JOSU OZAITA
ANTROPOLOGOA

I.S.A. Ibarra

Bera ibartarra izanik, piperra eta bere herriak dute lotura jaso du Josu Ozaitak (Ibarra, 1980) *Piparra* liburuan.

Ibarra eta piperra uztartu dituzu liburu berean. Nola?

Antropologia ikerketa zabal bat egin dut. Hizkera informal eta argazkien bidez, liburu freskoa egin dugu. Elkarrizketa asko egin ditut, baina hausnarketa dinamika ezberdinak ere egin ditugu 789 elkartearekin, udal taldearekin eta Uzturpe ikastolarekin elkarlanean. Behaketa parte hartzailea ere egin dut, hau da, piperra biltzen aritu naiz astebetez, esaterako, eta gero hori kontatu dut.

Piperra Ibarrrako parte dela sentitu duzu?

Ibarrrako sinbolorik garrantzitsuena da. Azken batean, piperra da Ibarra mapan jarri duena, Ibarra ezaguna bada, piperragatik izan da. Herritarrek oso bere sentitzen dute produktu hori eta ikus daiteke herriko ekimen ezberdinetan beti egiten dela lotura piperrarekin.

Hilberriak eta urteurrenak



Miel Azkarate Zabaleta



Bere emaztea: Domi Egiguren; Semeak: Juani eta Uxoia, Mikel eta Lucia; Bilobak: Oier, Nerea; Azkarate ta Egiguren familiak.

Tristura haundi hontan, hitz polittenak Domi ta Mielentzako.

Zuen ondoan guztiok biltzen asmatu dezuelako. Denoi lagundu, maitatu ta zaindu gaituzuelako. Bihotzez, eskerrik asko.

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Irene Caminos, Espainiako Txapelketari begira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Urte berezi honetan biketrialetako probak ere martxan jarri dira, batzuk behintzat, eta Irene Caminos tolosarrak dagoeneko Espainiako Kopako bi probatan parte hartu du, bietan bigarren eginez. Bere aurretik Vera Baron geratu da bi probetan, eta hirugarren proba bat geratzen bada ere jokoa, ez duela Kopa irabazteko aukerarik esan du Caminosek. Horregatik, azaroan jokatu den Espainiako Txapelketa du jomugan txirrindulari tolosarrak: «Iaz irabazi genuen eta ea aurtengoa ere posible den».

Sorpresaz hartu du Caminosek probak jokatu ahal izatea. «Udan esan ziguten denboraldia bertan behera geratuko zela. Munduko Kopa eta Txapelketa ez zirela egingo esan zuten, eta gero, azkenean, Espainiako Kopa eta Txapelketa antolatu dira. Pixkana goaz, beraz». Cartagenan eta Cambrilsen jokatu



Jouy, Baron eta Caminos, Cambrilseko probaren sari banaketan. ATARIA

diren Espainiako Kopako probetan iazko maila ez zuela emango bazekien tolosarrak: «Nazioarte mailako probak egin ez direnez, banekien ez nuela maila bera emango. Azkenean, lehiaketaren erritmoa hartzen hasi gara, baina Vera Baron oso indartsu dago». Cambrilsen hirugarren egin zuen Mailys Jouyk.

Espainiako Kopako hiruga-

rrren proba Murtzian izango du, urriaren 25ean, eta ondoren Espainiako Txapelketa, azaroaren 7an eta 8an, Tarragonan. Txapelketan lehen postua lortzeko borrokan egotea nahi du. Halere, burua datorren urteari begira du batez ere: «Pixkana lehiaketako erritmoa hartzen jarraitu nahi dut, eta garrantzitsuen da hurrengo urtean hasieratik erritmo onarekin hastea, eta ea hurrengo urtean emaitza onak lortzen ditugun».

Denboraldia, beraz, lau proba eginez bukatuko du Caminosek. Ohiko denboraldi batean triala gehiago lantzen du udan, baina aurten alde fisikoa landu du gehiago: «Bizikleta alde batera utzi dugu, ez zegoelako txapelketarik. Orain, proba hauek jarri dituztenez, berriro hartu dugu bizikleta». Aurrera begira, datorren urteko Munduko Kopa eta Txapelketa ditu helburu nagusi: «Urteko proba garrantzitsuenak dira horiek».

Jon Erasun: «Greba badago, ez dut partida jokatu»

Erasunek Eskuz Banakako Promozio Txapelketako aurre kanporaketa du larunbatean

Asier Imaz Zizurkil/Amezketan

Pilota profesionalaren egoera nahasia da eta oraindik ez dago ziur igandean jokatzeak den Binakako Txapelketaren finala azkenean egun horretan jokatu den. ELA sindikatuak epaitegitara jo du, greban zeuden Baiko-ko bi pilotariri, Agirre eta Albisuri, finalerdietako partida galdutzat eman zitzaielako norgehiagokara ez azaltzeagatik. Bien bitartean, Jon Erasun Baiko-ko pilotari zizurkildarrak hitzordu garrantzitsua du larunbat honetan, Etxebarriko frontoian. 17:30ean hasiko den jaialdian Eskuz Banakako Promozio Txapelketako aurre kanporaketa jokatu du Zubizarreta III.aren aurka. «Oraingo, jokatzeak entrenatzen ari gara», zehaztu du Erasunek. «Ez badago konponbiderik, greban jarraituko genuke eta ez nuke jokatu».

Egoera «konplikatu» bizitzen ari direla gaineratu du Erasunek: «Ez gabilta gustura, eta ea pixkana irtenbidea topatzen zaion, eta berriz ere pilotan jokatzeak prest jartzen garen». Zizurkildarrak ez daki zer egingo duen Zubizarreta III.ak greba deialdiak bere horretan jarraitzen badu. Orain gutxi egin du debuta eta ez da egon Baiko-ko pilotariak egin dituzten prentsa agerraldietan. Pilotariak aurreko astean elkartu ziren enpresarekin, baina ez zen akordiorik izan eta horregatik grebarekin hasi ziren aurreko asteburuan. Aste honetan ez dago oraingo beste bilerarako deialdirik, eta zain daude pilotariak enpresaren aldetik zer pauso emango diren.

Egoera argitu bitartean, Erasun larunbateko partidarako entrenatzen ari da. Ez du aurkari

erraza partida horretarako, Zubizarreta profesionalerara igo berria bada ere, afizionatueta hainbat txapelketa irabazitako aurrelaria baita. «Aurkari zaila da. Orain egin du debuta, baina partidak irabazten ari da, oso ondo jokatu», esan du zizurkildarrak. «Uste dut nire lana oso ondo egin beharko dudala berari lana emateko».

2018an Promozio Txapelketako finalera iritsi zen Erasun eta orduan izugarritzko defentsa erakutsi zuen. «Orduan maila ona eman nuen, eta nire helburua da oraingoan hobea ematea. Saia-tzen naiz nik galdu gabe, ea besteek tantoa egiten didaten. Defentsan uste dut gehiago hobetu dezakedala. Airez ere luzeago ateraz gero, besteek ere urrutia-gotik jotzen dute eta min gutxia-gotik egiten dizute. Beti ere hobetu daitezkeen xehetasunak izaten dira».

ALTUNA III.A, AMEZKETAN

Aspe enpresak antolatuta, pilota profesionalak jaialdia izango da bihar Amezketan, Larrunarri frontoian, eta bertan parte hartuko du Jokin Altuna herritarra. 21:15ean hasiko da jaialdia, eta lehenengo partidari Darioen eta Peio Etxeberriaren arteko neurraketa izango da, Eskuz Banakako Txapelketaren aurre kanporaketari dagokiona. Bigarren partidari, Irribarria-Ladis Galarza eta Altuna III-Bikuña bikoteen arteko partida jokatu da.

Unai Iribarren denboraldi amaiera ona Balentziagan

I. Garcia Landa Ibarra

Denboraldia bukatu du Unai Iribar txirrindulari ibartarrak, eta ez nolana, seigarren postua lortu baitu Balentziaga Oroime-nezkoan. Gustura dago lortutako emaitzarekin: «Espainiako Kopako proba bat izanik, eta kontuan hartuta ibilbidea ez zela niretzat egokiena, baloratu beharreko postua da», esan du Iribarrek. «Egutegiko lasterketa garrantzitsuen da afizionatuen mailan, eta hor lehiakor izatea gustura egoteko modukoa da».

Igandean jokatu zen Eibarko Arrateko igoerarekin bukatu zen proba. Aurretik txirrindulari gutxi batzuk alde egin zuten mendatean gora, eta horien artean jokatu zuten gerora saria. Iribar eta beste bi txirrindulari gertutik jarraitu zituzten, eta helmugan horietatik azkarrena izan zen Iribar bera, irabazlea izan zen Jon Barrenetxearengandik 22 segundora iritsiz. «Puntu txiki bat falta izan zitzaidan aurrene-



Unai Iribar, ezkerretik bigarrena, Balentziagaren Oroime-nezkoan. CARLOS DE COS

ko horiekin joateko», zehaztu du ibartarrak.

Orain hiru astez atsedean hartuko du Iribarrek eta berriro azaroan hasiko da denboraldi-aurrearekin. Normalean denboraldia otsailean hasten dute. Aurtengoaren balantzea egiterakoan, batez ere bigarren zatian izandako erregulartasunarekin dago gustura Iribar. Bere lorpenei begiratuz, nabarmentzekoak dira Lehendakari torneoa irabazi izana, Euskaldun torneoan bigarren egitea, Segurako San Juan

Saria irabaztea, eta beste lau probatan podiumean sartzea.

Oraingo ez du talde profesional baten deirik izan txirrindulari ibartarrak. Aurten pauso hori ematea zailagoa dela azaldu izan du, profesionalak direnek ezin izan dutelako denboraldi berezi honetan bere maila behar bezala erakutsi, eta dirudienek taldeak berritzen ari dira hitzarmenak. Datorren urtean izango du Laboral Kutxako txirrindulariak bere dohainak berriro erakusteko aukera.

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

PAUSORIK PAUSO
berriro martxan!

Facebook Instagram Twitter
Billabona Fke



OSTEGUNA, 2020KO URRIAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 15

AGENDA

Zinema

Tolosa. *El peral salvaje* filma Leidor aretoan, 20:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Jose Luis Longaron 1952 – 2019, Aranburu jauregia.
Tolosa. Le(s) Dormeurs(s), Igor Rezola, Gko Galleryn.
Tolosa. Miren Fagoagaren erakusketak, 3 tabernan.
Tolosa. Mugikortasun-ereduaz hausnartzeko, Trianguloa plazan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena, kantu eskaintzak, agenda, Galtzaundiren Hitzez Hitz.
16:00. Zebrabidea. Magazina
20:00. Musikasi. Karmen Sanzekin musika klasikoak.

28 KANALA

11:00. Elkarriketap (Nerea Erbiti);
11:30. Gaurkoan Tolosalde; **12:00.** Hiri baratzea; **17:00.** Valentin Larrea-ren kontzertua Gabirin; **17:30.** Gaurkoan Tolosalde; **21:30.** Gaurkoan Tolosalde; **22:00.** Lehen lerroan (Beñat Iturrioz)

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. E. Bengoe-txea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro kaxkarrarekin jarraituko dugu. Euri zaparradak egun osoan izango ditugu, indartsuago eta mardulago egunaren lehen zatian botako du-larik. Arratsaldean tartekatuago eta ahulago botako du. Haizeak iparraldetik ahulago joko du eta tenperatura ez da 12-13 gradutik pasako.



Bihar. Argitzera egingo du eguraldiak. Goizaldean oraindik euri tantaxkaren bat eroriko da, baina goizean bertan atertu eta ostarteak zabaltzen hasiko dira, arratsaldean giro nahiko polita geratuko zaigularik. Termometroek gora egin eta maximoak 13-14 graduan geratuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



ATARIA

«Hirugarrenez nazioarte mailan aritzea handia da»

IRAITZ ARROSPIDE LASTERKARIA

Imanol Garcia Landa
Amasa-Villabona

Larunbatean Maratoi Erdiko Munduko Txapelketan parte hartuko du billabonatarak Gdynian (Polonia).
Nolatan hartuko duzu parte txapelketan?
Txapelketan parte hartu ahal izateko gutxieneko denbora lor-

tua nuen. Taldean bost lasterkarientzat lekua zegoen, eta hasieran erreserba moduan banagoen ere, azkenean, beste taldekide batek ezingo duenez, parte hartzeko aukera izango dut.
Zer suposatzen du zuretzat aukera honek?
Helburu handi bat zen niretzat. azken bi urteetan nazioarteko txapelketetan lehiatzea lortu

dut, 2018an Europako Maratoi Txapelketan, 2019an Munduko 50 kilometroko Distantzia Luze-ko Txapelketan, eta hirugarren urtez nazioarte mailan lehiatzea sekulakoa da. Urte osoko lanak bere etekina eman du.

Zer asmorekin joango zara Poloniara?

Lan on bat egitea da nire helburua. Nire denbora hobetzen saiatuko naiz, eta horrek taldeari laguntza emango dio.

Une honetan zein da maratoi erdian zure marka?

Ordubete bi minutu eta 56 segundo.

Urte ezohikoa dela kontuan hartuta, hori hobetu dezakezula uste al duzu?

Hobetzeko aukera dagoela ikusten dut, nahiz eta duela hilabete maratoi erdi bat egin eta ez atera uste bezain ondo.

Valentziako maratoia zenuen helburu nagusietako bat.

Urteko helburu nagusia zen, datorren urteko olinpiar jokoetarako garrantzia duelako. Maratoirako entrenatzen ari naiz, eta maratoi erdia beste distantzia bat izan arren, prestaketan sar daitekeen distantzia da.

Olinpiar jokoak nola ikusten dituzu?

Datorren urtera begira, badirudi neurriak hartuz jokoak egitea posible izango dela. Niretzat aukera bikaina izan da larunbatekoa, eta urteko azken helburuan, Valentziakoan urteko emaitzarik onena lortzen saiatuko naiz.

